



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2018KO URTARRILAREN 12AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Jone Urdanpilleta Urdanpilleta eta Alaitz Aizpurua Labaka.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gartzia Palaciossek eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA: 2017/12/19KO BILKURA.

Batzarkideek, 2017ko abenduaren 19ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- USURBILEN HUTSIK DAGOEN MERKATARITZA LOKAL BATEAN JARDUERA
EKONOMIKO BERRI BAT ABIAN IPINI NAHI DUEN EKINTZAILEARENTZAT
LOKALAREN ALOKAIRURAKO DIRU-LAGUNTZA EMATEA.**

Esp. zk.: HE.06/2017-0020

Ikusirik

2017ko uztailaren 5ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzailearentzat 2017 urteko diru-laguntzaren oinarriak arautuz eta aurkezteko epea urriaren 31 arte emanez.

Diru-laguntza honen bitartez gehienez ere bi urteren alokairu gastuak diruz lagunduko dira:


-Lehenengo urtean alokairu gastuaren %40a, gehienez ere 300 € hilean .

-Bigarren urtean gastuaren %30a, gehienez ere 200 € hilean.

Lokalaren alokairuaren prezioa gehienez ere 10€/m²ko izango da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, alokairu gastuei dagokiena bakarrik izango da (BEZ-a eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita) eta ez dira lokalaren erabilerari lotuak egon daitezkeen bestelako gastuak kontuan hartuko (komunitate gastuak, ura eta argindarraren gastuak, e.a.)

Udalaren deialdian onartutako diru-laguntza, gehienez ere 12 hilabeteko alokairu gastuei dagokiena izango da. Datorren urtean diru-laguntza jasotzen jarraitu ahal



Usurbilgo Udala

izateko, dagokion urteko deialdian diru-laguntzaren luzapena eskatu beharko da. Diru-laguntza gehienez ere 24 hilabeteko alokairu gastuei dagokiona izango da

Epea amaituta, bi **eskaera** jaso ziren.

Eskatzailea	IFK	ENPRESAREN JARDUERA
Tapuntu koop.Elkarte Txikia	F75137216	Komunikazioa
Kabiene: Elkarlaneko ekonomia sustatzeko elkartea	G75175679	Elkarlan gunea

Aurkeztutako agirien egiaztapena egin ondoren 2017ko azaroaren 17an epaimahai kalifikatzailea bildu zen, (Garapen eta Hezkuntza Saileko arduradun politikoa, Siadeco, Hurbilago elkarteko ordezkaria, Beterrri-Buruntza ekinean zerbitzuko teknikaria eta Garapen eta Hezkuntza saileko teknikaria), oinarrietan ezarritako balorazio erizpideen arabera puntuazioak emateko.

Entitateek lortutako emaitzak:

Eskatzailea	GUZTIRA
Tapuntu Koop. Elkarte Txikia	70,65
Kabiene	75,1

Lokal hutsetako diru-laguntzen epaimahai kalifikatzaileak bi entitate hauei gehienez ere 12 hilabeteko alokairu gastuei dagokien diru-laguntza ematea proposatzen du. Bigarren urtean diru-laguntza jaso ahal izateko, dagokion urteko deialdian diru-laguntzaren luzapena eskatu beharko da.

Bestalde, Hezkuntza eta Garapen Ekonomiko arloko teknikariak txostena egin eta abenduaren 4eko Hezkuntza eta Garapen Ekonomiko ez-ohiko Batzordera eraman du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman zezan.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak 2017ko abenduaren 12an egindako bilkuran, ebazpen-proposamena egin zuen diru-laguntzen inguruan.

Ebazpen proposamena abenduaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, interesatuei hamar eguneko epea emanez alegazioak aurkezteko.

Bestalde, Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko ebazpenaren berri eman da.

Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.



Usurbilgo Udala

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzailearentzat 2017 urteko diru-laguntzaren oinarriak (GAO, 2017/07/5).
- Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen ekintzailearentzat 2017 urteko diru-laguntzaren behin behineko ebazpena (GAO, 2017/12/21)
- Kontuhartzailletza Sailaren ziurtagiria.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duten bi ekintzailearentzat diru laguntza behin betikoz onartzea.

Eskatzailea	IFK	Diru-laguntzaren zenbatekoa	12 hilabete
Tapuntu koop.Elkarte Txikia	F75137216	300 € / hilean	3.600 €
Kabiene: Elkarlaneko ekonomia sustatzeko elkarte	G75175679	286 €/hilean	3.432 €

Bigarrena: Hilero justifikatutako ordainketa bakoitzari dagokion laguntza ekonomikoa gairatutako hilabetera jasoko du ekintzaileak. Laguntza ekonomiko hau jaso ahal izateko, hilero ordainagiria aurkeztu beharko du Erregistro Nagusian.

Hirugarrena: Garapen ekonomiko diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.5000.481.241.00.02 (A1 /2018)

Laugarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Bosgarrena: Kontu-hartzailletzari akordioaren berri ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:45ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.